


Astekaria



elgoi



Aro berrirako prestatzen



GENERALI ASEGURUAK "RONKINA"

San Bartolome 6, atzekaldea. ☎ 74 41 01 Aitor Eizagirre Ondarza 200105 agentea

- ETXE ASEGURUAK
- ISTRIPU ASEGURUAK
- AURREZKI PLANAK
- KOTXE ASEGURUAK...



*Zuzenbide
berria*

ALKATE ETA ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI

DUGU!

1995eko maiatzean UDAL HAUTESKUNDEAK direla eta **ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteak** **ZERA ADIERAZTEN DU:**


Elgoibarko herria, % 70a euskalduna edo ia euskalduna izanik, ahalegin serioa egiten ari dela laster batean herri euskalduna izateko.

Ahalegin honetan administrazioak eta politikoez aitzindari eta eredu izan behar dutela, datozen lau urteotan alkate eta zinegotziek euren funtzioak, batez ere, euskaraz beteaz.

Horregatik **ELGOIBARKO ALDERDI POLITIKOEI ZERA ESKATZEN DIZUEGU:**

- Alderdi bakoitzeko zerrendaburua edo alkategaia bere eginbeharrak euskaraz burutzeko gauza izatea.
- 90-94 legealdian izan duzuen zinegotzi kopurua kontutan izanik:
 - EAJ-PNVri, lehenengo zortzi hautagaiek euskaraz jakitea.
 - HBri, lehenengo laurek euskaraz jakitea.
 - EAri, lehenengo biek euskaraz jakitea.
 - PSE-EEri, lehenengo biek euskaraz jakitea.
 - Beste alderdiren bat aurkeztuko balitz, hautagaien zerrendan euskaraz dakien ahalik eta hautagai gehien egotea.
- Udal Batzordeetako lehendakariak euren betebeharrak euskaraz egiteko gauza izatea.
- Hauteskundeetako kanpainan, euskaldunok Elgoibarren garen portzentaia aintzakotzat hartuz, euskarari lehentasuna ematea.

Eskaera hauek, Herriaren onerako, kontutan hartu eta beteko dituzuelakoan,

 **ELGOIBARKO IZARRA**
Kultur Elkartea



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:
Anjel Ugarteburu.

KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:
Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortoste.

KOLABORATZAILEAK:
Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOË, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Informatika Elgoibarren

Informatikak bilakaera sendotzat izan du azken urteotan Euskal Autonomi Elkartearen, batez ere Gasteizko Gobernuak bultzatu dituen laguntza programei esker. Bere hedapenean eragin handia izan zuen IMIak (Introducción de la Microelectrónica en la Industria).

Informatika lan instrumentu arrunta bihurtu da Elgoibarko enpresetan. Informatikak dituen hiru arloetatik (gestioa, teknika eta ofimatika), teknikak izan du eraginik eta hedapenik handiena Elgoibarren, kontuan izan behar baita gure industriaren ardatza erramintakin produkzioa dela. Ekintza honek, erreminta makinaren produkzioak, maila ertain eta altuko enpresetan behintzat, sistema informatikoen erabilpena eskatzen du, bai diseinurako bai gestio komertzial zein produktiborako ere. Honek azaltzen du zergatik izan den Elgoibarren hain hedatua informatika, izan ere erreminta makinak informatikaren beharra izan baitu. Beste zona batzuetan bestelako

produkzioa egotean informatikaren beharra ez da hain garbia izan.

Gestio informatikari eta ofimatikari dagokionean, Elgoibarko egoera inguruko herrietakoa bezalakoa da, kontuan hartzen badugu biztanlegoa edota erabiltzen den ekipaia informatikoa.

Azpimarragarria da, baita ere, sistema informatikoen erabileraren eta enpresen tamainaren arteko erlazioa. Enpresa zenbat eta handiagoa izan orduan eta gehiago erabiltzen dira teknika informatikoak. Gestio informatika nomina eta kontabilitatean erabiltzen hasi bazen, gaur egun produkzioa hedatu da bere erabilera. Gainera, ekipo hauek gero eta gehiago egokitzen dira enpresa txiki eta ertainetara eta kostua jeisten ari da.

Guzti honek ez du esan nahi informatikaren egoera Elgoibarren guztiz ona denik, asko hobetu daiteke eta hobekuntza hori datozen urteotan ikusi ahal izango dugu, etengabeko garapena izango duen alorra baita.

Carmelo Urdangarin

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

Errotatxok honako kexa hau bidali du BARREnera: "Joan zen asteartean Gregorio Monrealen omenez egin zen hileta ospakizunean, Jose Luis Bellosoren hitzak ez zitzaizkigun egokiak iruditu. HIESaren eta drogaren munduak nahastu zituen, jendea eta Gregorio bera marginatu. Epaiketa bat zirudien. Ez dugu nahi Bellosok erabilitako hitzak errepika daitezen. Horregatik, gure ustez gaizki dagoena salatu nahi dugu".

Erretxindi auzoko irakurle batek deitu digu auzo honetako paper kontenedoreak zergatik diren berdeak eta ez urdinak salatzeke. Kolorea ezezik kokapena ere desegokia iruditzen zaio, kotxearekin errepidera irteterakoan, ibilgailuaren muturra gehiegi atera behar delako, horrek duen arriskuarekin.



TXALOAK

IMira joaten diren gazte batzuek orain arte bertako arduradun izan den Onintza Aranburu txalotu nahi dute. Eskerrak eman nahi dizkiote egindako lanagatik eta uneoro laguntzeko prest izan delako.

ESKUTITZAK

Senideen ahotsa

Behin eta berriz, eta lerro hauek aprobetxatuz, gure senide euskal preso politikoen aurkako espetxe politika berezia salatu nahi dugu.

Tratamendu berezi horren oinarrian dispersioa dago, berak inkomunikazioa, isolamendua, trasladoak, jipoiak, irainak, osasun asistentzia eza... areagotu eta izkutatzen baititu, euskal preso politikoei giza-eskubide minimoenak ere errespetatzen ez zaizkielarik.

Gure senide presoen oinarriko eskubidea errespetarazteko eta bere erabilpen politikoa ekiditeko modu bakarra dago: EUSKAL HERRIRA EKARTZEA!

Beren eta gure eskubidea da.
Deba Beheko SENIDEAK

Eskubidea ala betebeharra?

Orain dela hamabost egun, martxoaren 5ean hain zuzen, eguraldi txarraren aurrean eta Herriko Antzokian filme ezagun bat botatzen zutelarik (Entrevista con el vampiro), bertara joatea erabaki nuen.

Sarreragatik, ohi den bezala, 350 pta ordaindu ondoren barrura sartu eta goiko solairura doazen eskilarak igotzeaz nengoelarik, hara non bertako arduradunetako batek, keinu batez behean eseri behar nintzela adierazten didan. Agindutakoa bete beharrean aurkitu nintzen, eta ni bezala, nire atzetik sartu ziren beste asko.

Pelikula hastear zegoela, goiko solairuko sarrera ireki beharrean aurkitu ziren, behea jendez gainezka zegoelako (beste askotan gertatzen

den bezala). Zergatik ez dute haseratik goiko solairua irekitzen?

Nik goian jartzea nahi badut eta azkena sartzen denaren eskubide berberak baldin baditut, zergatik eseri behar naiz behean, agian gustukoa ez dudan eserleku batean? Ez al dugu denok berdinduz ordaintzen? Zer nolako arrazoiak dituzte zineko arduradunek, goiko solairua itxita edukitzeko?



O.F.

Eskerrik asko!

Kaixo! Ikastolako 8. mailako ikasleak gara. Astelehena, hilak 3, Tossa de Mar (Gerona) herrira joango gara gure ikasbidaia dela eta. Bertan, makina bat ekintza burutuko ditugu. Adibidez, Cala Llevadón (ins-talatu behar garen lekuan) ur kirolak eta lehorrekoak egingo ditugu (wind surf, eskalada etab.), Bartzelonan, Montjuic, zoota, "El pueblo español", planetarium-a... bisitatuko ditugu, etxerakoan, Zaragozatik pasako garenez, "El Pilar" ikusteko aukera izango dugu. Ostiralean, hilak 7, bueltan izango gara iluntzeko 9ak aldera. Bidaia hau posible izan dadin guk geuk, 8. mailako ikasleok, gure itsulapikotik ere dirua ipini dugu. Honez aparte, eskerrak ematea nahi dizkizuegu bidaia hau burutzeko lagundu diguzuen guztioi: gurasoei (goizeko 8etan tortilak egitera jaiki izanagatik), irakasleei (egin ditugun ekintzetan lagundu izanagatik: jaialdia, txoznak, Olentzeroa...), Elgoibarko herritarrei (rifak erosteagatik) eta azkenik Elgoibarko aldizkaria den BARREni (gure ekintzen berri eman izanagatik). Besterik gabe, agurtzen gara eta ESKERRIK ASKO denoi!!

Ikastolako 8. mailako ikasleak

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Mendaroko lagun batek lagatakoa da**. Mendaron aterata dago **1967. urteko abenduaren 8an**, Ama Birjinaren Egunean. Jakin dugunez, inguruetan ospatu zen lehenengo “Erri-meza” izan zen Mendarokoa. Meza **Jose Roteta** apaiza zenak eman zuen eta eliza gainezka egon omen zen, Mendaroko eta inguruko eliztarrez beteta. Mezan **Jose Zabala** eta **Jesus Muguruza** aritu ziren bertsoan.

Meza ostean herriak “Agur Jaunak” abestu zuen eta *Gazteak* dantza taldeak dantza ikuskizuna eskaini

ziren bertara bildutakoei.

Arratsaldean eta egunari bukaera emateko, kantiariak eta txalapartariak izan ziren. Kantuan, besteak beste, **Xabier Lete** eta **Lourdes Iriondo** eta **Argoitia anai-arrebak** izan ziren; txalaparta jotzen, **Arza anaiak**.

Erretratuan goian aipatutako batzuk ikus ditzakegu. Ezkerretik hasita:

Xabier Lete, Jesus Muguruza, Jose Zabala eta **Lourdes Iriondo**.

Antolaketa lanetan, Mendaroko gazteak ibili ziren nahiz eta sasoi hartan ez zen giro izaten horrelakoak antolatzeke.

ZELETA Barazkiak

BARATZGINTZA tradizionala eta babestua.

Landare exberdinarak produzitzen ari gara: tomate hibridoak, piperra, ...



Betiko dendetan aurkituko dituzu gure landareak:

Luis Kortaberria
"Otsua"

Txarridana
PENTSUAK

INEKO
Nekazari Kooperatiba

ZELETA BASERRIA ☎ 74 30 22 - San Migel Auzoa - ELGOIBAR



IMI Ordenagailuen mundura ate ireki bat

Informatikaren mundu sofistikatuarekin harremanak gero eta aruntago ari zaizkigu bihurtzen, eguneroko bizimoduko hainbat aspektutan funtsezko elementu ari baita bihurtzen. "Beharrezkoa informatikari buruzko ezagutzak izatea", "halabeharrezko baldintza, Cobol, word perfect, Windows edo Mac erabiltzen jakitea" eta antzeko iragarkietan irakur daitezkeen esaldiek lan mota baterako kualifikatuak dauden pertsonak aukerarik gabe uzten dituzte. Informatika ikastearen inportantziaren adibide. Ildo honetatik IMI bezalako zentruak, ordenagailuekin ekipatutako lekuak sortu dira han eta hemen. Elgoibarren ere badugu bat, Mekanikan dagoen IMI zentrua.

Zertara etortzen zara IMIra?

Jose Ignacio Garitaonandia
71 urte, teknikoa

“Nik betidanik egin izan dut lan zuzendari moduan eta jubilatzean ordenagailuekin hasi nintzen entrenimendu modura. Etxean ordenagailua daukat, lehen Mac kaxkar bat eta orain potentzia handiagoko bat, Autocad erabili ahal izateko, marrazketa industrialerako. Ni izatez eibartarra naiz eta han IMIrik ez dagoenez Elgoibarrera etortzen naiz. Urrian hasi nintzen hemen eta hasieran ez nekien marra bat bera ere egin ordenagailuan, ezertxo ere ez,



eta hemengo arduradunen laguntzaz gauza mordoia ikasi ditut. Asko animatu naute eta dagoeneko hiru dimentsioko 20 bat lamina eginak ditut eta 75 lamina Autocad-en. Izugarri gustatzen zait, oso engatxatua nago”.

Igone Igartua
24 urte, injenieri teknikoa

“Ikasle garian ere etortzen nintzan, eskolako gauzak egitera. Orain langabezian nauanez, denbora pasa etortzen naiz, klaseko gauzak errepasatzera. “Lenguaje C” deitzen dan programakin nabil, klasian emandakua da. Matematiketako programa bat da determinantiak eta ekuazioak kalkulatzeko, pantailak eitxeko... eta holako gauzetarako erabiltzen da. Lehen ez jatazen asko gustatzen ordenagailuak baina azkenian ‘kallua’ hartzen jako. Dana dala ez naiz egunero etortzen, ba-

Udalaren eskuetan dago Mekanikako lokaletan kokatua dagoen IMIa. Onintza Aranburu 23 urteko elgoibartarra analista programadorea da eta orain gutxi arte bera egon da IMIko arduradun modura. Honen ordez Aitor Eguren egongo da aurrerantzean eta bera informatikan lizentziatua da. Bi gazte hauek informatika ikasteko zentru honen funtzionamendua azaldu digute.

IMI deitzen den lekura informatika ikasi nahi duen edonor joan daiteke edo ordenagailuekin lotutako beste edozein zerbitzu erabili nahi duen edonor, hala nola dokumentuen inprimaketa, informatikari buruzko dokumentazioa (bideoak, liburuak...). Guztira 16 PC eta 4 Macintosh daude, eta gehienez bi pertsona aritzen dira ordenagailu bakoitzeko, "gehienez 32 pertsona egoten da aldiko baina normalean ez dirahainbeste batera egoten", batzbesteko kopuru bat

jartzearen 25 bat pertsona eguneko pasatzen dela IMItik azaldu digute Onintzak eta Aitorrek.

Arratsaldez bakarrik egoten da irekita, 3etatik 10ak arte, eta larunbatetan goiz osoa. IMIra datorren pertsona bakoitzari ordenagailu bat egokitzen zaio landu edo ikasi nahi duen programaren arabera, "ordenagailu guztiek ez baitaude kapazitatea berdina eta horregatik batzuk programa bat dute eta beste batzuek beste programa bat". Edozein zalantza argitzeko edota programa bat ikasteko eman behar diren pausuak azaltzeko daude arduradunak, lehen esan bezala aurrerantzean Aitor Eguren arituko da lan horretan. "Autoestudio"rako leku bat dela esan daiteke, "nork bere kabuz ikasten du eta ataskatuta geratzen direnean guk laguntzen diegu" esan digu Onintzak.

Gaurkotu beharra

Inguruan oso leku gu-



■ ■ Onintza Aranbururen ordez, Aitor Eguren dago orain.

txitan dago irekita IMIa, Hernanin, Arrasaten, Azpeitin, Deban... eta guztien artetik Elgoibarkoak dauka bisitari kopuru altuena. Zerbitzua dohai-nekoa da guztiz, "beste herri guztietan, berriz, kuota ordaintzen dute". Dokumentazioari zein ekipamenduari dagokionean, nahiko zaharkitua geratu da hango materialeak, jen-

deak gauza berriak eskatzen ditu. "Etengabe beritzen den informatikaren munduan bizi gara, baina dena berritzeak kostu handia dauka, ordenagailuak oso garestiak dira eta".



Maria Victoria Garate


38 urte, administraria

“Langabezian nago eta informatika mailan neure burua apur bat defasatua ikusten nuenez erabaki dut hona etortzea. Kurrikulumerako inportantea da informatika jakitea, 22 urtean administrari lanetan ibilitakoa naiz eta ez dut sekula ordenagailurik erabili lanerako. IMIra etorri aurretik gestiogintza ikastaroak egindakoa naiz "Centro de Estudios Informaticos" delakoan. Urtarrilean hasi nintzen "Word Perfect"arekin, orain "Hoja de caculo" egiten ari naiz eta "Windows"a ere nahiko



nuke ikasi; agian ikastaroren bat egingo dut. Oso polita iruditzen zait ordenagailuen mundu hau, ez nuen uste hain atsegina egingo zitzaidanik. Gainera hemengo irakasleak zoragarriak dira, izugarri lagundu didate”.

tzuetan bakarrik. Etortzen naizenian hiru edo lau bat ordu sartzen ditxut eta batzuetan moskeatu eitzen naiz prdenadoriak, baina bueno... Kurrikulum-ak eixtera ere etortzen naiz, eta bueno, arratsaldia pasatzera ere bai”.



*ibai-
ondo*
Erretea

- ▷ JAUNARTZEAK
- ▷ BATAIOAK
- ▷ AFARIAK
- ▷ DESPEDIDAK...

Giza eskubideen Plaza
☎ 74 26 27

**BOUTIQUE
DEL PAN**

Enpanada
Baserriko ogia
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

O I H A L A
eta
M E R Z E R I A

Newerrira egindako jantziak

Errosario 8 • Tel: 74 35 95 • ELGOIBAR

**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 beheak
Tel-Fax: 74 04 89

ASTE HONETAN

Gero eta beharrezkoagoak dira ordenagailu pertsonalak etxean

Informatikaren sortze, iraultza eta bilakaeraren lekuko izatea suertatu zaigun garaian bizi gara. Beraz, ez da harritzekoa ordenagailuen erabilera gero eta arruntagoa izatea bizitzako edozein arlotan, bai industrian, zein zientzian, irakaskuntzan eta abar... Hala ere, bada oraindik, zinemaren eragina dela medio edo, informatika makina konplexuekin erlazionatzen duenik, edo beraien erabilera gizaki bakarti eta aspergarientzat dela bururatzen zaionik.

Etixerako erosten dugun ordenagailua, "ordenagailu pertsonala" terminuaz izendatzen edo ezagutzen dugu. Beronen oinarritzko ezaugarriak neurritz txikia izatea, modu oneko prezioa edukitzea eta instalazio elektriko berezirik behar ez izatea dira. Ordenagailu pertsonalek eta enpresa haundietan aurki ditzakegun ordenagailuek funtzionamendu berdina daukaten arren, bien arteko desberdintasunik nabariena lanerako duten kapazitatean aurkituko dugu, hau da, memoria printzipala deritzonean, RAMean, abiaduran...

Gaur egun, ordenagailu pertsonalak ia edozein ekintzatarako presatuak daudela esango nuke. Etxeetan bertan, hainbat gauzatarako erabil ditzakegu, adibidez; eskutitzak, lanak edota apunteak idazteko, marrazkiak egiteko, argazkietan daukagun itxura aldatzeko, jolasean ibiltzeko, etxeko

aurrekontuak eta kontabilitatea eramateko, errentaren deklarazioa egiteko, modem-ari esker beste ordenagailu bat daukan munduko edozein pertsonarekin harremanetan jartzeko... Aipaturikoez gain, erabilera arriskuetsuago bat ere eman diezaiokegu. Honetarako duela hilabete Ipar Ameriketako mutiko batek lortu zuena gogoratzea besterik ez dugu behar. Bere ordenagailua eta agudezia erabiliz, NASAtik informazioa ateratzea lortu zuen.

Hemendik zenbait urtera, etxean ordenagailua edukitzea, gaur telebista edo telefonoa edukitzea bezain beharrezkoa izango da.



ONINTZA ARANBURU

Ba al daukazu ordenagailurik etxean?



VICTOR MAKOWKA
14 urte, ikaslea

Bai badaukat. Nik eskolako lanak egiteko erabiltzen dut, gizarteko lanak, eta abar... eta gurasoek ere etxeko administrazioa eramateko erabiltzen dute.



SERGIO GALARRAGA
18 urte, ikaslea

Duela urte bete pasa erosi nuen. Jolasteko, eskolako lanak egin eta artxibatze eta txuletak egiteko erabiltzen dut batez ere.



JUDIH LOIOLA
21 urte, ikaslea

Ez, ez daukat. Enpresariak ikasten ari naiz baina oraindik ez dut beharrik izan. Lanen bat egin behar izan dotenian eskolako ordeagailura juten naiz.



JAVI RODRIGUEZ
20 urte, kamareroa

Ez. Ikasle banintz agian erosiko nuke baina lanean nagoenez ez diot erabilerarik ikusten, praktikoak izan daiteke baina ez da beharrezkoa.



TERESA FLORES
31 urte, etxekoandrea

Badaukagu baina orain ez dugu ezertarako erabiltzen, jolaserako. Aspaldi erosi genuen zerbait ikasteko asmotan baina gero ez diogu erabilerarik eman.



JONE ETXABE
48 urte, irakaslea

Ez daukat, nere eginkizunetarako ez da beharrezkoa. Informazio eta datu asko daudenean artxibatzeko erabilgarria izan daiteke baina ez da nere kasua.

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?
Hitzegiteko: landu zure ahotsa!
Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK
ANGELA ZABALETA AIZPITARTE
DEITU ☎ 74 15 56

PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAREN ERABILTZAILEAK - BERRIZTATZEAKE - PINTAKETA

■ Odol ateraldia eta batzar nagusia

Datorren ostiralean, apirilak 7, odol ateraldia izango da arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean. Bestetik, datorren 30ean Odol Emaileen XXX. batzar nagusia egingo da Zegaman. Batzarraren aurretik meza izango da, ostean, lagun arteko bazkaria eta gero opariaren zozketa. Joan nahi duen edonork Ramon Maiztegi, Begoña Izagirri edo Imanol Konderi eman diezaioke izena apirilaren 20a baino lehen.

■ Dantza ikuskizuna apirilaren 7an

Udal Kultur Zerbitzuaren eskutik eta Musika eta Dantza Fundazioak lagunduta, "Con buen pie" taldearen "En la trastienda" dantza ikuskizuna antzeztuko da apirilaren 7an, ostirala, Herriko Antzokian. Duela bost urte jaiotako dantza konpainia honek pret a porter denda batean gaueko 8etatik goizaldera arte gertatzen diren gorabeherak kontatzen ditu umore klabean. Dantza estiloa gaurregunekoa da, eta manikiak dira protagonistak. Saioa 22,15etan hasiko da eta sarreraren zenbatekoa 350 pta izango da eta haurrena 200 pta.

■ Elgoibarko Institutuko 3 ikasle sarituak izan dira

Elgoibarko Institutuko hiru ikasle sarituak izan dira "Euskal Eskola Publikoa Denona" Ipuin Lehiaketan. 17-18 urte bitarteko neska dira hiruak. Mirari Osorok lehen saria jaso du euskaraz, "Arantza bat bihotzean" lanagatik; Celia Pelaz irabazlea izanda, baita ere, baina gazteleraz idatzitako ipuinen kategorian. Celiaren lanak "Para la prosperidad" izenburua zeraman. Eta, azkenik, gaztelerako bigarren saria Elgoibarrera iritsi da, kasu honetan Sonia Etxaniz izan delarik irabazlea.

Xabi Zelaia aske utzi zuten asteazkenean kargurik gabe



Astearte goizean Xabi Zelaia 22 urteko gaztea atxilotu zuen Ertzantzak joan den larunbatean gertatutako istiluetan parte hartzeagatik. Egun oso bat komisaldegian eman ondoren, epaileak aske utzi zuen inolako kargurik gabe. Xabik berak adierazi du ez zuela zerikusirik izan zapatuko istiluetan.

Gertakariaren inguruan Elgoibarko EAJ, EA eta PSOE alderdietako bozeramaileen batzordeak kaleratu-

tako ohar batean "auzotarren integritatea eta elkarren arteko konbidentzia arriskuan jartzea helburutzat duten ekintza fazista eta basati hauek" salatzen dituzte hiru alderdiok. Istiluetan parte hartu zuten pertsonak hiru aurrezki kutxetan kalteak eragin zituzten bai eta telefono kabinetan eta kutxazain automatiko batean ere Maalan eta 634 errepede nazionalean kontenedoreak erre zituzten.



Euskal Herriko otargintzari buruzko erakusketa apirilaren 11 arte egongo da bisitatzeko moduan. Luis del Barrio eskulangile donostiarrak egindako ehundik gora otar ikus daitezke, astoen gainean jartzen diren otarrak, sardinerak, otarra tradizionalak etab. Argibide modura testutxo bat darama objektu bakoitzak eta honez gain, bideoa eta diapositibak ere badaude.

Sigmak ateak itxi ditu

Sigmako langileak duela pare bat hilabete elkartearen jabe egin ziren eta orain Sigma istea erabaki dute daramaten industri proiektua, “erabat bideraezina baita”. Hori dela eta 250 pertsona kalean geratu dira eta aste honetan zenbait mobilizazio egin dituzte. Besteak beste, asteazkenean Eibarrera joan ziren oinez eta ostegunean Eusko Jaurlaritzaren aurrean elkartu ziren, Gasteizen.

Sigmako 250 langilek Eye Korporazioa osatzen dute (Sigma, Eyedis eta Estarta Ingenieria Makinaria). Orain bi hilabete Urkei gabinetek bere gain hartu zuen enpresaren gestioa eta ahalegin guztiak egin dituzten arren enpresa aurrera ateratzeko, ezinezkoa izan da eta itxi beharra izan dute. Isteko arrazoen artean, aurreko gestoreek egin zuten gestio kaskarra aipatu behar da, bai diseinu aldetik bai eta Sigma Book deitu zenaren produkzioari dagokionean ere. Bestalde, akzionistei ere leporatzen diete errua, “hauek ez baitzuten jarraitu, hasi zuten kapital gehiketa”. Akzionista nagusia Banko Gipuzkoanoa da eta honen jarrera ere salatu dute. 1994 urtean 1.086 milioi galdu zituen Sigmak, horietatik 578 milioi explotazio



ezkorren emaitza izanik eta beste 508 stock-ari buruzkoak. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak expediente bat ireki du Sigmaren aurka. Izan ere, Sigmak 3R Planetik 900 milioi jaso zituen eta diru hori ez du erabili baldintzetan zehaztu zen gauzetarako. Hori dela eta, Jaurlaritzak dirua itzultzea eskatuko dio Sigmari.

Orain bi urte Sigma Eibarko Alfa enpresarekin harremanetan hasi zen bien artean aliantza bat sortu asmoz. Orain bigarren saiakera bat egitekotan dira. Alfa prest dago bi enpresak lo-

tzeko baldin eta Eusko Jaurlaritzak jartzen badu beharrezko hondasuna. “Alfak proiektuak baditu baina dirurik ez, beraz dirulaguntza publikoa behar dugu”, adierazi zuen Enrike Treviñok, Alfako zuzendari orokorrak. Mementuz, badirudi Sigmako zenbait langile erremintamakina alorra landuko duen enpresa bat martxan jartzekotan direla, honek 250 langile horietako 35-ilara eskainiko liekeelarik.



San Bartolome Ikastolako 5. mailako

neska-mutil talde hau Euskal Telebistako *Baietz Barrez Lehertu* saioan izan zen. Txistekak kontatzen jardun zuten bertan, eta irabazle atera ere bai. Sari modura argazkian ikusten den bideoa eta telebista inguratu zituzten Ikastolarako. Programa aurrerago emitituko da eta bertan ezkerretik eskumara ageri diren Joseba Gonzalez, Uxue Alberdi, Ainhoa Uriarte eta Asier Barrutia txistekak kontatzen ikusiko ditugu.

■ Esmalte ikastaroa

Egur Arte Lantegiak sutan egindako esmalte ikastaroaren inguruko gorabeherak ikasteko aukera eskainiko du apirilaren 3tik 25era bitartean antolatutako duen ikastaroan. Izena emateko Egurren lokalera zuzendu arratsaldeko 6,30etatik 8ak arte (Ubitarte z/g). Ikastaroa egunero izango da, astelehenetik ostiralera bitartean arratsaldeko 6etik 8ak arte.

■ Ikastolako zozketa

Ikastolako 8. mailako ikasleek martxoaren 25ean egindako rifen zozketan 3406 zenbakia suertatu da irabazlea. Zenbakiaren jabeak Ikastolara dei dezake 74 44 41 telefonora saria jasotzeko. Azken eguna 25a izango da.

■ Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua emango du igande honetan, apirilak 1. Jose Antonio Osoro zuzendari dela bost pieza joko dituzte Herriko Antzokian eguerdiko 12,30etan hasiko den saioan: "Intermezzo sinfonico", "Herb Alpert Selection n°1", "Una noche en Calatayud", "Marcha eslava" eta "Suspiros de España".

■ Hauteskunde zerrenda gaztea aurkeztu du PNVk

PNVko Uri Buru Batzarrak maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda aurkeztu zien komunikabideei asteartean. Zerrendaburu edo alkategai Guillermo Garate aurkeztu du alderdiak, bukatzar dagoen legealdian Kultur Batzordeko presidente lanetan ibili dena. Bigarren postuan Jose Mari Oruesagasti aurkeztu da. Alderdiko arduradunek adierazitakoaren arabera bi lehen hautagai hauek gai politikoez arduratuko lirateke. Gainontzean herritar gazteak dira zerrendako lehen postuetan daudenak. Hirugarren Isak Loiola, laugarren Belen Elorza, bostgarren Iñaki Oñederra, Ana Santolaia seigarren, Gotzon Arrieta ondoren eta zortzigarren hautagai gisa Kristina Gonzalez, hauetatik Elorza, Oñederra, Santolaia eta Gonzalez independente modura. Alderdikideen esanetan "orain arte izan den bezala, batzorde guztietan hautagaiak ateratzea espero dugu". Eskuaratean dituzten proiektuekin jarraitzeko asmoa dutela adierazi zuten "administrazioaren zerbitzua hobetu nahi dugu, Aldundiak diru laguntza gutxitu duela eta diru aldetik urri ibiliko garela kontuan izanik beti ere".

■ Antimilien oharra

Elgoibarko Talde Antimilitaristak bilera eguna aldatzea erabaki du. Astelehenean gaueko 10,30etan izan barik, asteazkenetan gaueko 9,30etan izango da Zazpikiko lokaletan.

Herri Batasunak euskara baztertzea egotzi dio EAJ-PNVri

Herri Batasunaren ustez azken legealdian euskararen inguruan gertatutakoari buruz, euskara bigarren mailako gai modura tratatu izana leporatzen dio PNVri, beti ere PSOEren esanetara daudelarik. "Mintxetako arduradunen eta bake epailearen kasuetan euskararen eza-gutza ez zen kontuan hartu, PNVk PSOEren eskakizunaren aurrean amore eman zuelarik". Honez gain, AEK baztertzeaz salatzen du Udala, "Korrikari, esaterako, pezetarik ez dio eman". Euskara ordenantzei buruz praktikan ez jartzea leporatzen dio Udalari eta SIADECOn inkesta lanerako eredu izanik, ildo honetatik lan egitea proposatzen du HBk. Euskara mailan ekimenik

garrantzitsuenak herrian bertan sortu dira: BARREN, begirale ikas-taroa, Korrika, Zazpiki... Udaletxe-ko langileak euskalduntzeko planari buruz, "42 langileren artetik 23k bakarrik gainditu omen du eskatutako perfila, 7 ikasten daude, 5ek adina gaintzearren ez dute atera behar, 3 postu hutsik daude, langile 1ek hitzarmen berezia dauka eta 3ren kasuan irregulartasunak gertatu dira, hau da, ez dira klaseetara agertu". HBkoen esanetan "perfila gainditu arren, gero euskara apenas erabiltzen duten Udaletxe-ko langileek, horregatik trebatzailearen figura sortzearen aldekoak gara, baina gobernu batzordeak oztopoak jarri ditu figura hori onartzeko".



Korrikaren 9. edizioko testigua antolakuntzak jarritako ordua baino beranduago iritsi zen Elgoibarrera. Joan den osteguneko goizaldeko 2,10 aldera iritsi zen Sigmara, handik herriko kaleak zeharkatu eta azkenik Azkoiti aldera abiatzeko. Goizaldera igaro arren jendeak ongietorri beroa egin zion Korrikari. AEKk antolatutako afarira espero baino jende gutxiago urreratu zen, batez ere gazteak. Baina orohar, balorazio guztiz positiboa egin du AEKk, "antolakuntza aldetik zein kilometroen salmenta aldetik sekula baino talde gehiagok hartu du parte. Dena den, igarri da krisiak gogor astindu duela gure herria". Korrika txikia ere "zoragarria" izan zen AEKko arduradunen iritziz; "eguraldia ezin hobea eta partaidetza ere erabatekoa".

**FERISALTSAN****Udaberriaren presentzia ez zen martxoko ferian igarri**

Udaberria ez zen eguzkitsu esnatu larunbat goizez. Aste osoa ikaragarri ona egin eta gero, feria lainotsu eta sirimiritsu jantzi zen. Martxoko feriak ez zuen berezitasunik izan, hilero bezala iritsi eta joan zen. Gure hileroko protagonista, argazkian ikus ditzakegun zumitzezko eta zeramikazko gauzak saltzen dituen mungiarra da. Normalean kan-

poan egoten bada ere, joan den zapatuan aterpea topatu zuen, sirimiriak bere salmenta minduko zuelakotan edo. Kontu hauen artean, plazara urreratu ginen eta bertan aurkitu genituen baserritarrei errenta aitopinari buruzko galdera luzatu genien. Gaurtik eta apirilera arte, hauek izango dutugu BARREneko "Kale zulotik baserrira" gehigarriaren protagonistak.

**PROTAGONISTA***Felix Castillo*

Zumitza eta zeramika saltzailea (Mungia)

● **Feriaz feria ibiltzen al zarete?** - Bai, urteko edo jai egunetako ferietara joaten gara, artisau ferietara.

● **Elgoibarkoa baserritarren feria da. Gehiagotan izaten al zarete?** - Azpeitin izan gara, Zumarragan baita ere Santa Luzia egunez...

● **Noiz hasi zineten Elgoibarrera etortzen?** - lazko uztailean.

● **Saltzen al da?** - Maiatzetik aurrera hasten da asuntua mugitzen. Abuztuko eta abenduko feriak oso ederrak dira. Garairik txarrena negua da.

● **Zer saltzen duzue?** - Zumitza eta zeramika daukagu. Dena eskuz egina, zeramika eskuz margotua. Otarrak, estanteak, aulkiak, jostailuak gordetze-ko kutxak...

● **Zuek egiten al dituzue?** - Ez, guk saldu egiten ditugu. Zumitzezko gauzarik gehienak Salamancatik ekartzen ditugu eta zeramika Valencia aldetik. Hemengo artisautza zertxobait garestiagoa da.

● **Saltzen duzuen gauzarik merkeena? Eta garestiena?** - Zeramikazko kandelabro txiki bat 300 pezetagatik eros daiteke eta garestienetarikoen artean, zumitzezko siloi batek 6.000 pta balio dezake.

Zer motako errenta aitorpena egiten duzue?



Artikulu honen bidez baserri-tarren errenta aitorpenari buruz hitzegi nahi nuke. Moduloen sistema berria sortu zenetik

baserri-tarrak nahikoa nahasiak dabil-tza, eman den informazioa era askota-koa izan baita eta askotan desegokia. Hori dela eta, nire ustez punturik ga-rantzitsuenak direnak azalduko ditut.

Hasteko zera esan nahi dut, haste-kotan den 1994. urteari buruzko errenta aitorpena azken urteetan izan den bezalakoa izango dela.

Bigarrenik, 1995. urteko aitorpena bi erataria egin daitekeela esan behar da: moduloka edo era zuzenean. Era zuzenean eginez gero, kontabilitatea oso osorik eraman behar da, kontu guztiak egin behar dira eta baserri-tar asko ez da gai hau egiteko; beraz, hobe etortzen zaie moduloka egitea, errazagoa baita. Moduloka egiterako-an, Ekintzaren Errendimendu Netoa kalkulatu behar du Haziendak, lur era-bilgarriaren hektarea bakoitzeko jarri duen moduloen arabera, bai eta ga-naduari buruzko moduloen arabera ere. Errendimendu honen arabera egingo da Errenta Aitorpena.

Azkenik zera aipatu nahi nuke: esne zentralak, harategiek, hiltegiak eta beste hainbatek ezartzen duten %2aren errententziora esker, baserri-tarrek ez dute hiruhilabeteko ordain-keta zatikatua egin behar. Hori dela eta, abeltzainek argi izan behar dute noren izenean izenpetzen dituzten fakturak, horrek eragina baitu aitorpe-na egiterakoan.

Nieves Loiola

BAILARAKO NEKAZARITZA
BULEGOKO idazkaria



Jose Maria Arizaga, 66 urte
Salon baserria (Plaentxi)

Gurian andria ibiltzen da asunto hoiekin. Ez dakitx zein tipotakua itxen daban baina guk kaleko bizimodua itxen dou eta

normala ingo dau.

Alberto Olea, 53 urte
Itxaso baserria (Eibar)

Ein bai baina neuk ez. Hamentxe, Elgoibarko Agrariako ofizinara eramaten dot eta bertan itxen die, baserrikuen



tipora itxen diela pentsatzen dot.

Rufina Arrieta, 58 urte
Aguaga Azpikoa baserria (Eibar)

Bai, neuk baserriku eitzen dot, hori tokatzen jata baserri-xan itxen dotelako lan, senarrak, berriz, kalia. Nik Camara agrarian itxen dot, Elgoibarren, bihar asko

kentzen dosku.

Valerio Irulegi, 47 urte
Ertxiola baserria (Errezil)

Ni baserri-xan bizi naiz baina ez det itxen. Aitona dao larogeita piku urtekin eta harek ez dau itxen. Ni tailerrian ibiltzen naiz



eta bertakua itxen det.

Iñaki Baskaran, 34 urte
Sumedixa baserria (Eibar)

Ez, nik ez, gurian amak itxen dau. Ez dakit zer eratakua baina Agrarian itxen dau, Elgoibarren. Asunto guztiak eruaten ditxu agrariatik, erretzaua da eta.

IRUNASO

Irunaso baserria San Migel bailaran dago kokatua. Agustin Mugerza igeltseroa da lanbidez, nahiz eta baserritik ere bizi diren. Animalia ugari dute eta horien artean bada bat nabarmentzen dena, zezena. Izan ere, Agustinek Mutrikuko beste sozio batekin Arno elkarte sortu zuen orain urte asko. Beraien zezenak ibiltzen dira jaietan Elgoibarko sokamuturretan.



Irunaso baserrian, San Migelen, 50 zezen inguru dituzte.

180 zezen inguru dituzte guztira. Horietatik 50 Agustinek izaten ditu Irunaso baserrian. Ondo moldatzen da beraiekin, “25 urte daramatzat dagoeneko”. Animalia zelatia da zezena, “larrean solte uztebaiozu trankil egoten da. Ezezagun bat urreratzen bajako deskonfiatu itxen du eta ahal daban urrutien aldegingo dau. Kalera bajatzian, toki itxixetan nerbioso jartzen da eta zirikatzen bajako berak ere gogor erantzuten dau baina beti bere burua defenditziazarren, ez atakatze hutsagatik”. Agustinek eskutik ematen die jaten, “pentsua, belar zikua eta babilia”. Betizu arrazako zezenak ditu nahiz eta gaur egun “mestizajiak ere egon, arrazia hobetzeko”. Gehienbat plazan ibiltzeko dauzka zezenak, “jaietan, sokamuturra eta enbolauetan”, baina jateko okelarako ere balio omen du, “okela ona da, biguna. Askotan jendiak ez dau nahi izaten okelia gorrixa izaten dalako eta batzueri ez jakue begixetatik sartzen”. Korridetarako ez dituzte zezen hauek, “hemen

IRUNASO

- **AUZOA:** San Migel
- **BIZILAGUNAK:** Josefa Egia, 82 urte, Jose Antonio Ansola, 51 urte, Agustin Mugerza, 44 urte, Rosa Maria Ansola, 42 urte, Eider Mugerza, 13 urte eta Nerea Mugerza, 10 urte.
- **LUR HEDADURA:** 17 hektarea.
- **GANADUA:** okelatarako behiak, ahuntzak, zaldia, ponia, astua, konejuak, ardiak, basurdea eta zezenak.
- **PRODUKTUAK:** Ortuko barazkiak etxerako.
- **BIZIMODUA:** Baserritik eta kaletik. Agustin Mugerza igeltseroa da.

ez dago nahikua kanpo horrenbeste zezen eukitzeko eta neuri ere ez jataz gustatzen korridak. Zezenak sokamuturran jolasian ibiltzia gauza bat da eta beste bat hiltzia”. Urtero txerria hiltzeaz gain zezena ere hiltzen dute Irunaso baserrian, “gainera gustatzen jaku lehenoko ohitxuria mantentzia, zezina detzen jaku, okelia kongelau biharrian, gataz bota eta askan sartzen da. Gustua diferentia eukitzen dau, bizixaua”.

Zezenen artian, beste gauza guztietan bezala, alde handia dago batetik bestera, “baina ona dan zezen bakoitzak 150.000 pezeta balio dezake”. Euren artean, taldean badago besteen jefea den zezenik, “borrokan ibiltzen dia eta irabazten dana itxen da bestian jefe”. 300 kiloko pisua dauka, gutxi gora behera, zezen batek, “baina sokamuturrarako adarrak ganaduan larruaz biltzen diogu, postizua ipintzen minik ez itxeko. Horregatik, zezena bera baino arriskutsuaua da pertsonia jausi eta lurrana kontra golpia hartzia”.

BASURDEA BASERRIAN

Gehienetan basurdea imaginatzean, basoan ibiltzen den animalia basatia etortzen zaigu burura. Baina Irunaso baserrian, beste animala guztien artean, zortzi hilabete dituen basurde txiki bat dute. “Mutrikuko baserri batean basurde bat zeukatzen domestikatu. Haren umea ekarri gendun gurera eta han ibiltzen da larrean gora eta behera zezenekin jolasian. Bazkaltzera jeisten da baserrira”.

Jose Mari Burumendi eta Iñaki Gabilondo:

San Lorentzo bailarakoak dira biak, Jose Mari Burumendi bata, 52 urte dituen gizona, San Lorentzo baserrikoa. Iñaki Gabilondo bestea, 41 urte eta Amuskategi baserrikoa. Biek badute afizio amankomun bat; urtarrilean hasi eta ekainera bitartean, arkumea erretzen jarduten dute, beraiek eta beste askok gozatuko duten bazkariko jaki nagusia. Orain bi aste, San Lorentzoko Pilota Txapelketako finalak jokatzeko ziren egunean harrapatu genituen.



- **Orain omen da arkumea jateko garaia.**

- Bai, urtarrilean hasi eta ekainera bitartean, kumunioak pasa eta gutxira, arkume asko jaten da. Entsalada, arkumea eta mamia edo gatzatua, hara hor garaiko menu berezia.

- **Urtean zehar zenbat erretzen dituzue?**

- 80 inguru izango dira, gutxi gora behera. Guk arkume bana kalkulatzeko 8 laguneko artian jateko. Hortik etara kontuak zenbat pertsona eta arkume jaten dian

San Loretzen urtian zehar. Gainera danak izaten dia inguruko baserrietan hazitxako arkumiak.

- **Zein izaten da prestaketa prozesua?**

- Lehenbizi ikatza jarri eta su eman bihar jako. Ordu erdi pasa eta gero, hari sugarra ertetzen jakonian, arkumiak gainian jartzen dia altura batera eta han laga bihar jakue erretzen. Pazientzia euki bihar da ze poliki poliki eixia komeni da, noizian behin bueltak emanaz.

- **Zenbat denbora?**

- Pare bat ordu gitxienez bihar ditxu biguna eta jateko modukua egon arte.

- **Eta saltsa berezirik ez al duzue prestatzen?**

- Arkumia berotuta dauanian, olixuakin, ozpinakin, berakatzakin eta gatzakin preparatzen dogu brotxa baten bidez. Gusto bizia emateko horrek, berezia. Gure artian danori gustatzen jaku horrela preparatzen.

- **Nolatan elizako arkumean?**

- Horrenbeste arkume

erretzeko toki irekita bihar da, bestela bero asko eta ke haundia urtetzen da eta. Aspalditxik erretzen dogu guk arkupietan. Eskatu dogu Udaltxian erretegi bat eixia San Loretzen. Hartara, elizako arkupia jata dana beltzutu biharrian eukiko genduan nun erre eta nun jan arkumia. Gai nontzian soziedadian konpontzen gera, ondo gainera, baina ez zan batera geizki etorriko erretegi bat eukitzia, propio arkumia itxeko.

LETXUGA

■ **JATORRIA:** Persek, greziarrek eta erromatarrek aspalditik ezagutzen zuten landare hau. Entsaladan jaten da batez ere eta bere ezaugarri lasaigarrietatik ezaguna da. Bitamina ugari ditu eta oso estimatua da gaur egungo dietetikan.

■ **FAMILA:** Compositae.


■ **KLIMA:** Letxuga mota asko dago eta bakoitza klima konkretu batera egokitzen da baina orokorrean klima

epel eta hezeak komeni zaizkiola esan daiteke.

■ **ZOLUA:** Batez ere lur franko eta freskoak, hezetasuna gehiegi eusten ez duen lurra, materia organiko ugari duen lurra.

■ **EREINTZA:** Motaren arabera ia urte guztian zehar.

■ **EREINTZA ELKARKIDEAK:** Apioa, aza edo azenarioa.



Marijo Mugerza

Mimox-ekoa



● **Zenbat denbora daramazu dendan?**

▶ 3 urte eta hilabete batzuk.

● **Jendea opariak erostera ideia argiekin etortzen da?** ▶ Mutilei lau gazua erakusten diezu eta berehala erabakitzen dute, emakumeek, aldiz, denbora gehiago behar dute. Dena den, denetarik dago.

● **Zein izan da jaso duzun azken oparia?**

▶ Hainbeste denbora pasa da ez dudala gogoratu ere egiten.

● **Diskak ala loreak?**

▶ Loreak.

● **Landareei hitz egitea komeni da?**

▶ Ez dakit ona den ala ez baina gaizki ez die egingo.

● **Zein da gehien saltzen den lorea?**

▶ Larrosa banala asko saltzen da baina bestelakoak ere bai.

● **Lore artifizialak ala naturalak?**

▶ Naturalak, baina besteek gehiago irauten dute.

● **Bonsaiak ala landareak?**

▶ Landareak. Bonsiak oso delikatuak dira eta.

● **Nora joango zara Aste Santuan?**

▶ Inora ere ez. Uste dut herria zaintzen geratuko naizela.

● **Musika talde bat?**

▶ Denetarik gustatzen zait baina bat esatekotan Dire Straits.

● **Zenbat balio du lore sorta batek?**

▶ Guk diru kopuru batengarik sorta egiten dugu, eroslea jartzen du topea. Baina adibidez larrosa batek 500 pta balio ditu.

● **Lore bat?**

▶ Tulipana, irisa.

● **Elgoibartarrok opari asok egiten ditugu?**

▶ Bai, beste edozein lekutan bezala.

● **Nori oparituko zenioke lore sorta bat?**

▶ Lagun bati, noren partez doan jakin gabe zer pentsatzen duen jakiteko eta barre egiteko.

● **Zer falta zaio Elgoibarko herriari?**

▶ Berde guneak. Kendu ziguten Malako parkea adibidez.

MAITE IRIONDO

KORRIKA PASA DA KORRIKA

Euskal Herriko bazter guztiak

pasa batetik bestera

Korrika dugu euskaltzaleak

bateratzeko aukera,

egun hauetan izaten dugu

denok helburu berbera,

euskaltzaleak bagera

indartu behar euskara, (BIS)

baina euskarak izan behar du

eguneroko karrera,

ahalegin horrek urte guztian

ez dezan egin behera. (BIS)



JON PELI URIGUEN



Martxoaren 23an hil zen SOR GREGORIA IGARTUA ARANBURU Karidadeko alabaren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Apirilaren 1ean, larunbata, meza egongo da bere arimaren alde. Arratsaldeko 7etan Elgoibarko San Bartolome Parrokian.

Iñaki San Martín:

"Afizio bezala hasitakoa, azkenean ofizio bihurtu da"

Iñaki San Martín, Santa Klaran dagoen "Fotografía Soarte"ko jabea da. Duela 6 urte zabaldu zuen denda, bere kontura lan egiteko ordua zela erabaki zuenean. Izan ere, ordura arte hainbat pelikulatan egin zuen lan kamara tekniko bezala, "La fuga de Segovia", "El Dorado", "Mi general", "Adios pequeña"...

Saura, Armiñan, Uribe eta beste batzuekin lan egiteaz gain bere propioa ere badu, "El país donde no se muere jamás", Italian egindakoa. Kontatzeko gauza asko izan arren, hitz gutxiko gizona da Iñaki. Bukatzeko BARRENi zorionak eman nahi izan dizkio 100. zenbakiagatik eta euskaraz jarraitza animatu gaitu.

- Noiz hasi zitzaizun argazkilaritza gustatzen?

- Orain dala 15 urte edo, gutxi gora behera. Afizionatu bezala hasi nintzen eta azkenean ofizio bihurtu da.

- Eta zelan erabaki zenuen denda jartzea?

- Zine mailan ibili nintzen eta urteak pasatu ahala, beti beste fotografo batzuentzat lanean ibili eta gero, diru piska bat lortu nuen eta familiaren laguntzarekin denda ipintzea erabaki genuen. Firma bat bezala lan egiteko ordua zela pentsatu genuen eta duela 6 urte zabaldu genuen denda.

- Zer motako lanak egiten dituzue?

- Zine mundua ez dot laga, "Fotografía Soarte" bezala ere ibili nintzen lanean beste rodaje batean baina gauza bat eta bestea ez da posible: lana hemen egitea eta aldi berean kanpoan egotea gehiegi zan, han bazaude ezin zera hemen egon. Industria mailan katalogoak e.a. egiten ditugu eta kalidadeagatik edo lan dexente daukagu arlo honetan; gero bodako erreportaiak ere eta herriko gauzetan egiten dogu lan.

- Nola sartu zinen zinearen munduan?

- Beti kontatzen dut



"Lana hemen egitea eta aldi berean kanpoan egotea gehiegi zan, ez zen posible izan"

gauza berdina, hori dana aspaldi esanda dao. Donostian "Escuela de la comunicación y de la imagen" en ikasten nengoela, "La fuga de Segovia"n egin nuen lan. Gero "La conquista de Albania" eta beste batzuetan lan egin ondoren, Italiara joatea erabaki nuen, irudi eta soinu teknikari estudiantzera, Florenciako "Centro de Ciencias Cinematográficas" zentruan. Han tesi modura pelikula bat egin nuen "El país donde no se muere jamás", Italo Calvinoren fabula bat da. Gero Euskal Herrira bueltatu nintzen eta hemen Imanol Uriberekin "Adios

pequeña"n hasi nintzen lanean. Hau bukatu eta argazki ekipo batean sartu nintzen Teo Escamilla eta beste hiruarekin batera. Berrito zinera bueltatu eta "Mi General", "Tata mia", "El Dorado" eta beste batzutan egon nintzen lanean, kamara teknikari bezala eta argazki munduan laguntzen.

- Zein izan da esperientziarik aberasgarriena?

- Lan konplikatua "El Dorado" izan zen; sei hilabeteretan Costa Ricako oihanean egon ginen. Esperientzia haundia eta aberatsa izan zan, bai bizitza aldetik bai eta profesional aldetik ere.

Honez gain, euskal zinean "La fuga de Segovia" izan da esperientzia profesional aberatsena.

- Zinean pelikula bat ikus-tean asko fijatzen zara?

- Bai, hori "deformación profesional" deitzen dana da. Gertatu izan zait jaiki eta sonidua ondo jartzeko eskatzea edo fokoa zentratzeko... eske bestela ezin da pelikula bat ikusi.

- Zein afizio dituzu?

- Lehen bidaiak, orain lana. Bueno, zinera joaten naiz. Ikusi dudaz azken pelikula "Pulp fiction" izan da. Irakurtzea eta pasiatzea asko gustatzen zait.

- Zein argazkilarik gustatzen zaizkizu?

- Asko, adibidez, Mapplethorpe, Andy Warhol, Victorio Estorado "Apocalipsi now" egin zuen argazkilaria da, Luis Cuadrados, argazki munduko lehenengo Oscar-a berak atera zuela uste dut Hollywood-en.

- Argazkilaritza artistikotik bizi al daiteke?

- Zaila da, arte mundua oso zaila da. Momentuan gauzak dauden bezala lanarekin bizitzea zaila da eta gainera arte munduan askoz ere zailagoa. Euskal Herrian oso zaila da, izena edukita ere...

BELEN ARRIZABALAGA

Parrokiako eraikuntza faseak

- Bigarren fasea: eraikuntzaren jarraipena:
- 1692ko azaroaren 22an, San Bartolome eliza eraikitzen jarraitzeko plano berriak aurkeztu zituen Lucas Longa arkitektoak. Bera izan zen obraren zuzendaria.
- Lucas Longa Mispilar Mendarokoa zen. 51 urte zituen eraikuntzaren konpromezua hartu zuenean, 1693. urtean. Hamar urtez, hil zen arte, obraren erantzunkizuna bere esku egon zen.
- San Bartolome parrokia eraikitzen hasi zenerako, Longa arkitektoak hainbat obra handi eginak zituen. Pedro Muguruza arkitekto elgoibartarraren esanetan, Longak estilo berezi bat zeukan arkitektura "eskorialtarraren" arauak jarraitzen zituelarik.
- Kontratuan eraikuntza egiteko zazpi urteko epea zeukala zehaztu zen. Longaren lehen eginkizuna gurutzadura lehenbaitlehen bukatzea izan zen, honela, bertan egin ahal izateko Olasoko eliza nagusian ospatzen ziren elizkizunak.
- Zimentu sistema zehazten zen baita ere, pilastra guztiak bere harroinekin eta atea lehen urtean amaitu zituzten eta gainontzekoa hurrengo sei urteetan.
- 1703an hil zen Lucas. Ordurako eraikina jasota zegoen kanpoko aldetik erlaizaraino, horma guztiak eraikiak zituen, pilastrak bere harrolinez eta kapitalez hornituak eta dorrearen azpiko pilastroiak ere eginak zeuden. Bukatuak zeuden, era berean, gurutzaduraren eta sarrera nagusiaren atea bai eta bataio-pontea ederra ere eta eraikitzen hasiak ziren

koroa, pilastrak eta taulamendua.

- Longak diseinatu zuen proiektua Martinez Agirrek eginiko diseinuarekin konparatuz hainbat ezberdintasun daudela ikus daiteke nahiz eta proiektu bietan nabe bakarra, eliz-atari berdinak, kapera nagusia, gurutzadura eta oinetan dorrea izan.
- Martinezek kontraormak kanpoak ipini bazituen, Lucasek eliza barruan kokatu zituen, kaperak beren aldarez hornituak eta gurutzaduraren angeluetako lau matxoiak sendotasunez. Kupula, berriz, alakatua izango da, gune handiagoo sortuz erdigunean. Astiazararen iritiz Italiako manierismoan erabili zen formula hau XVI. mendean.
- Haserako proiektuko kapitela doriarreko pilastra klasikoak pilastra

erraldoiez ordezkatu ziren, erdi puntuko arku fajoien tinkapuntua izanik. Era berean, azken eliz-atalean, korora igozteko eskailera kokatu zen eta honen bataio-pontea

harmoran itsasia. Bataiategia barkalunezko (balaustre) burdinsare batez itxia aurkitzen da. Guzti hau Mendaroko arkitektoaren proiektuan.

PELLO ARRIETA



Felipe Zubiaurre Municipala (1925-1986)



- San Migel auzoko Ballegoiti baserrian jaio zen 1925. urteko irailaren 12an.
- Altzolako eskolan jardun zuen 12 urte bete arte eta soldadutza egin eta gero Elgoibarrera etorri zen Goardia Municipal lanak burutzera.
- Hiru municipal ziren, Pedro, Bernardo Zubiaurre (Feliperen osaba) eta Felipe bera.
- Berrogei urte inguru eman zituen municipal gisa.
- Zaletasunen artean, soinua jotzea gogoko zuen. Erromeriak atsegin zitzaizkion eta zezen enbolatuak ere bai.
- Korrikalaria ere bazen. Jaietan burutzen ziren kros herrikoietan parte hartzen zuen.
- Denbora librean ilea moztzen zien ezagun eta lagunei.
- 1986ko maiatzaren 19an hil zen.

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kalea 4-7 ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

MOTZAK

Emitza ezin hobekak lortu ditu Gorka Sanchez-ek

Mintxeta-Txankakua Atletismo Taldeko Gorka Sanchez korrikalari gaztea bikain aritu zen joan den astebukaeran Anoetan burutu zen Gipuzkoako, Kataluniako eta Andorrako selekzioen arteko txapelketa triangularrean. Sanchezek Gipuzkoako bigarren eta Euskadiko laugarren postuak lortuak zituen eta hortaz, Anoetako triangularrean Gipuzkoako ordezkari izateko hautatu zuten. 1.000 metroko lasterketan denborarik onena egin zuen 2'59" hain zuzen. Benjaminetan Ana Etxanizek eta Alaitz Merinok lehen eta bigarren postua eskuratu zuten hurrenez hurren Hondarribin izandako krosetan. Lasterketa berean aritu ziren Angel Quintana eta Itziar Leiaristi lehendabiziko postuetan sailkatu ziren alebinetan.

Gorka Garate Euskadiko selekzioan izango da

Ibai Gimnasiko Gorka Garatek apirilaren 2an Arrasateko Kiroldegian izango den Euskadiko Txapelketan parte hartuko du Gipuzkoako 17 urtez azpiko taldean. Espainiako txapelketarako sailkatzeko urrezko domina eskuratu beharko luke Gorkak oraingoan. Dena den, lehenago birritan lortu izan du podiumean egotea, behin irabazle modura eta beste batean, bigarren postuan.



Erkuden Idiakez:

"Etorkizunean nesken talde on bat izango dugu"

■ **Noiztik eskubaloian?** - 6. mailan hasi nintzan, gero Eibarren jokatu naban lau urtez eta orain dela bi urtetik Elgoibarren nago.

■ **Eta entrenatzaile modura?** - Ia urtebete daramat kadete neskekin baina entrenatzailea berez, Ales Arrieta da, nik lagundu egiten diot.

■ **Dagoeneko Gipuzkoako txapelkun. Zein da klabea?** - Pentsatzen det euren arteko giruak asko eingo dabala. Danak batera hasi zian Ikastolan, eurak lagunak dia eta gurasoen artian ere harreman estua dake. Oso ondo eruaten dia danak, beti daude elkarrekin eta barrutik bizi dabe.

■ **Gipuzkoako txapelketa eta gero zer?** - Igoera fasea jokatuko dabe baina, jubenilen talderik ez daukagunez, ezingo dira igo. Horregatik Federazioarekin gabiz berbetan igotzen lagatzeko. Errezege irabazten ditzue partiduak, 20 eta 1 eta horrelako emaitzekin, eta horrek desmotibatu eitzen ditxu.

■ **Entrenatzaileak ere izango du zeresanik, ez?** - Bueno, bai. Lehenago euki zaben entrenadoriak, Enekok, asko irakatsi zien. Kalitate handiko taldea da. Poliki poliki hor doaz goraka.

■ **Teknikoki taldearen zein ezaugarri azpimarratuko zenituzke?** - Lateralak, atezaina,... oso



onak dira, piboteak ere bai. Hauetako bat gainera preselekzionatua izan da eta beste hiru edo lau Euskadiko selekzionarako hautatu dituztela uste dot.

■ **Partiduak ez galtzeko?** - Kontraerasoan asko jokatzen dute.

■ **Hobetzekotan?** - Agian estremuak hobetzia falta jakue. Hobetu dute piska bat baina nire ustez indarra falta jakue.

■ **Jokalaria ere bazara.** - Seniourretan jokatzen dut. Iaz hogeitaldere artetik azkenak geratu ginan eta aurtan, bederatzigarrenak. Zeozer hobetu dogu. Baina hemendik aurrera jendia faltako jaku.

■ **Zer etorkizun ikusten diozu kadeteen taldeari?** - Oso ona, jarraituko dabela uste dot lehentasuna ematen diotelako eskubaloia-ri. Datorren urtian berriro kadetietan egongo dira eta gero jubeniletara pasauko dia. Seniorretara pasatzeko orandik lau urte falta jakuez baina nik uste dot etorkizunean Elgoibarrek talde on bat izango dabala.

- Adina: 20
- Talde bat: Elgorriaga
- Futbolari buruz zer iritzi?
Anti-futbola naiz
- Zerengatik aldatuko zenuke eskubaloia?
Ez nuke aldatuko

Zatoz antxitxika **BARRE**neko
kamiseta eskuratzera!

TXIKIAK
400 pta.

HANDIAK
600 pta.



Lagun Taldeko jubenilek laugarren

MOTZAK

Patin ikastaroa

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, maiatzeko lehen hiru larunbat goizetan patin ikastaroa burutuko da Kiroldegiko frontoian. Izena emateko epea irekita dago eta parte hartu nahi duenak 74 44 15 zenbakira dei egin dezake.

Igandean hasiko da futbito txapelketako azken fasea

Igande honetan, hilak 2, Urasandiko futbito txapelketari dagokion bigarren eta azken fasea jokatzen hasiko da. A eta B taldeetako hamar talderik onenek Ligako txapelketa jokatuko dute eta gainontzeko guztiak Kopan arituko dira. Partiduak tarteka jokatuko dira, igande batean Ligari dagokion partidua eta hurrengoan Kopakoari dagokiona. Igandea hasiko den Ligako txapelketa honetan lehia gogorra izango dela aurreikusten da, talde guztiak hutsetk hasiko baitira. Aurten inoiz baino beranduago bukatuko da Urasandiko Futbito Txapelketa, Kopako zein Ligako finalak uztailaren 2an jokatuko dira eta.



■ ■ Lagun Taldeko 17 bat txirrindularik korrituko dute igandeko lasterketan.

Elgoibarko txirrindularien Lagun Taldeko jubenilek Debako XXII. Hamaikak-Bat lasterketan parte hartuko dute igande honetan, apirilak 2. Honako hau denboraldi honetako laugarren lasterketa da, lehenago Eibarren, Antzuolan eta Azpeitin korritu dute.

Goizeko 9,30etan Deban hasi eta leku berean eguerdi partera amaituko den lasterketa burutzeko 81 kmko ibilbidea bete beharko dute txirrindulariek. Debatik

Elgoibarrerantz abiatuko dira, Itziarko gaina bi aldiz igoko dute eta Mutrikutik pasa ondoren, Calvariotik Debako helmugara iritsiko dira. Elgoibarko Lagun Taldearen izenean 17 txirrindularik korrituko dute. Hauen artean, txirrindulari askok dute lehen postuetan gertzeko aukerarik, aipatzekotan Antzuolako igoeran 7. geratu zen Ramos, Galarraga, Unzueta eta beste batzuk ere bai. Lasterketa Elgoibartik igaroko da goizeko 10ak aldera.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 1

- 10,45: Elgoibar - Beti Ona (Infantilak)
- 12,15: Elgoibar - Urki (2. errejionala)
- 17,00: Haundi - Santurtzi

Igandea 2

- 10,00: S.D. Eibar - Hernani (Kadete de Honor)
- 12,00: Urki A - Urki B (Jubenilak)
- 17,00: Elgoibar - Añorga (Jubenilak)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 1

- 16,00: Pagoaga Elgoibar - Bermeo (Kadete Neskak)
- 17,30: Elgoibar E.T. - Zarautz (KAdete Mutilak)

FUTBITOA (Liga) Urasandin Igandea 2

- 11,00: G. Garcia - Univ. Chile King-Kong - H. Verboten
- 12,00: D.T. Veterans - Karkis Kosakos - Mimox
- 13,00: S. Roketarra - Pedruskos

EMAITZAK

FUTBOLA

- Arantzazuko Ama 1 - Elgoibar 1 (Infantilak)
- Elgoibar 1 - Zarautz 1 (Kadeteak)
- Elgoibar 3 - Zumaia 1 (Neskak)
- Beti Ona 2 - Elgoibar 2 (Jubenilak)
- Mondragon 3 - Elgoibar 1 (2. errejionala)
- Aloñamendi 1 - Haundi 1

ESKUBALOIA

- Leizaran 7 - Pagoaga Elgoibar 7 (Kadete neskak)
- Ereintza 14 - Elgoibar 17 (Kadete mutilak)
- Elgoibar 23 - Zarautz 28 (Jubenil mutilak)
- Bermeo 15 - Elgoibar 10 (Senior neskak)

FUTBITOA

- King-Kong 13 - D. Kalimotxo 0 Oraiko Cafe 5 - Replastisa 2
- Kosakos 3 - La Maxia 2 Haritza 0 - D.T.Veterans 5
- San Roketarrak 0 - G. Garcia 3

BANAT, S.L.:

Planoen araberako pieza fabrikatzaileak

Industrias Banat S.L. Ibaitarte industrialdean kokatutako enpresa auxiliarra da. Sortzailea Gregorio de las Heras elgoibartarra izan zen. Hainbat enpresatan lanean jardun ondoren, azkena Super-Ego izan zen, enpresa propioa sortzea erabaki zuen Elgoibarren bertan, 1980. urte inguruan.

Gregorioren esanetan hasieran Santa Klarako lokal batean eman zituen lehen urratsak enpresa auxiliari honek. Mendarora joan ziren gero, eta han eratu zen gaurregungo enpresa, 1983an, izena ere aldatuz: BANAT elkarte murriztua. Sei bazkidek osatzen dute berau, "hobe baita nire ustez, -dio Gregoriok- erresponsabilitatea pertsona bakar batena izan ordez, gehiagorena izatea". Mendarotik gaurregungo lekura aldatu ziren, Ibaitarte industrialdera, alegia.


Piezen fabrikazioa

BANAT enpresan piezak fabrikatzen dituzte. Erreminta makinaren sektoreko enpresentzako piezak, automozioaren sektorerako, RENFE enpresarentzako zein nekazal iharduerekin zerikusia duen enpresentzako piezak egiten dituzte. Honez gain, Elgoibarko Leku-Ona komertzialak saltzen dituen piezak BANAT-ek egiten ditu.

Lan prozesua bezeroak ekarritako planotik hasten da. Eskaria aztertu, planoak interpretatu, aurrekontuak egin eta bezeroak onartuz gero, makinak martxan jartzen dira piezak egiten hasteko. Era askotako piezak egiten badituzte ere, rakore-



Alto eta entxufe bizkorrek fabrika-
■ ■ Banat lantegiko makina bat. Eskuman, Gregorio de las Heras, Banat-eko gerentea.



ENPRESAREN FITXA

- ✘ **IZENA:** Industrias BANAT, S.L.
- ✘ **SORRERA URTEA:** 1983
- ✘ **SORTZAILEA ETA GERENTEA:** Gregorio de las Heras.
- ✘ **IHARDUERA NAGUSIA:** Planotik abiatutako piezen fabrikazioa.
- ✘ **FABRIKATZEN DITUZTEN PRODUKTUAK:** Rakoreak, entxufe bizkorrak...
- ✘ **LANGILE KOPURUA:** 8
- ✘ **URTEKO FAKTURAZIOA:** 70 milioi.
- ✘ **HELBIDEA:** Ibaitarte 14
- ✘ **TELEFONOA:** 74 21 00
- ✘ **FAXA:** 74 35 39



banat izaten dute lantegirik uteri aurretik. Fase hau metrologia unitatean burutzen da.

1995ari begira

Enpresa eratu zenetik, urte txarrrak pasa izan dituzten oroitzapena dute. "Europar eta orokorrean munduan bizi izan dituzten une txar horiek, 1992an eta batez ere 1993an, guk ere jasan behar izan ditugu. Altzairu bereziaren eskasia dela eta, irabaziaren marjena oso kaxkarra da. Lana egon badago, baina prezioa asko ajustatu behar da". 1995. urteak goranzko joera ekarriko duen esperantzaz ekin diote urteari

Yoga, nor bere barruan begiratzen ikasi

Gorputzaren eta buruaren arteko oreka egokia lortzea da zientzia gehien funtsa. Duela milaka urte Indiako Yogiek praktikatzen zuten helburua ere, antzerako zerbait lortzea dela adierazi digu Yoga irakasten diharduen Idoia Martikorena debarrak. “Pranaïama” edo arnasketa tekniken bidez, “asana” edo posturak landuz eta erlajazioaren bitartez pertsonaren garapen osoa lortzea bilatzen du Yogak; gorputzaren eta buruaren arteko ezkontza hitz batean, bizitzarekiko jarrera bera ere aldatzen delarik.

Idoia Martikorenak zortzi bat urte daramatza Elgoibarren Yoga klaseak ematen baina aspalditik ezagutzen du mundu hau, duela 15 bat urtetik gutxi gora behera. Jakinminak bultzatuta, edota osasun arazoren batek bultzatuta jotzen du normalean jendeak Yoga bezalako ihardueretara, soluzioren bat topatu nahian. Askok eta askok gaitz fisikoei soluzioa emateko egiten dute Yoga, burukominak, bizkarrezurreko arazoak... eta gaitz mentalak sendatzeko ere bai, stressa, depresioak...

San Frantzisko kaleko atzeko aldeko garaje batean, manta baten gainean lurtean eserita, oinutsik, Idoia esanei jarraituz burutzen da klasea. Lasaitasun mentala lortzea da lehendabizikoa, kanpoko guztiarekin deskonektatzea, alegia. Behin egoera horretan gorputzaz gozatzea da helburua, arnasketa tekniken eta posturen bidez. Gorputza, burua, arima eta emozioen oreka lortzeko, armonia



■ ■ **Yoga ikasketa prozesu bat da, emaitzak ikusteko konstantzia behar da.**

lortzeko egiten da lan.

Ikasketa prozesu bat bezalako da, emaitzak ikusteko, konstantzia behar da. Elenak 48 urte dauzka eta joan den irailean hasi zen Yogan. Ordudanik “aldia” igarri du, “serenidadia bilau dot nere barruan, asko laguntzen dit eguneroko bizimoduan. Depresiuagatik etorri nintzan ni, eta honekin lortu dot medikamentuekin lortu ez dotena, beste indar bat eman dit, neure burua ezagutu eta problemeri aurre egiten ikasi dot”. Bittori beteranoagoa da, 52 urte dauzka eta 10 urte darama Yoga egiten. “Bakea topatu dut Yogarekin. Zerbait topatu nahi nuen, eta horretarako gimnasia egiten nuen, gimnasia asko. Liberatzeko modurik egokiena ez

zela ohartu nintzen eta Yogarekin aproba egitea erabaki nuen. Orduetik hobeto sentitzen naiz, neure barruan begiratzen ikasi dut”.

Dagoeneko hiru talde ezberdin sortu dira Elgoibarren, astean birritan ordu terdiz aritzen dira. Gehienak emakumeak dira, “ez dakit zergatik ote emakumeak soilik etortzearen arrazoia, baina egia da oraindik gizonezkoek ez dagoela, beraz, etortzera animatu nahi ditut”.



■ ■ **Arnasketa eta posturen bidez, erlajazioa bilatzen da.**

Agurrak

Apirilaren 8an ZORIONAK eta KONGRATULEIXON Miren.

APIRILAREN 2AN ez itzazu zuk bakarrik pastel guztiak jan. ZORIONAK ZANPAN! Lankideak

Bestelakoak

Otsailaren 19an ARGAZKI KAMARA BAT galdu nuen Sigmako zubia eta San Frantzisko iturriaren bitartean. Chinon markakoa da.

☎ 74 27 89 Mari Karmen

TXIRRINDULARI KASKO BAT eta ANTIOJUAK GALDU nituen hilaren 12an BBV aldameneko kailejoian. (Biona pentsuen parean). Jaso dituenak mesedez deitu.

☎ 74 42 93

HISTORIALARI BAT eskaintzen da genealogia egiteko.

☎ 88 30 72 Arkaitz
Iluntzeko 8etatik aurrera

CARITASEk sukalderako eta salarako ARMARIO BAT behar du.

☎ 74 15 09 ☎ 74 12 57

Lana

ENPRESA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUAK kontabilitate balantzeetarako analisi eta auditoriako partikularrak ematen ditu. Maila guztiak.

☎ 74 03 95

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.

☎ 74 39 89 Mari Karmen

Neska euskalduna ETXEKO LANAK edota UMEAK ZAINTEZKO prest dago. Goizez.

☎ 74 09 02 Kristina

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.

☎ 74 43 16 Mari Karmen
Goizez

Etxebizitzak

PISU BAT erosiko nuke.
☎ 74 08 20
Gauzez deitu

APARTAMENDU BAT daukat Jakan, udaran alokatzeko.

☎ 74 15 22

PISU BAT alokatzen dut. Altzari eta guzti. Lan orduetan

3 hilabetetarako bi bainu gela dituen ETXE BAT alokatuko nuke.

☎ 74 41 32 Edurne

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.

☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.

☎ 74 32 98

Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.

☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m² eta bi planta.

☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut santa Ana 46 zenbakian

☎ 74 13 67

GARAJE BAT alokatzen dut San Roken, 5 zenbakian. Marraduna.

☎ 74 02 61

Salerosketak

LORITO BAT saltzen dut kaiola haundi batekin batera.

☎ 74 26 32 Txomin

LANBRETTEA 150 (Bi-X) eta MOBILETTE BAT saltzen ditut.

☎ 74 26 32 Txomin

ERREPIDE BIZIKLETA BAT saldu nahi dut. "Contini" kuadroa eta "Simano" tresnak ditu. Prezio ona.

☎ 74 00 67 Martin

Jatorduetan

Super nintendo KONTSOLA BAT SALTZEN DUT.

Mando batekin, 8 jokurekin eta adaptadorea Amerikar eta japoniar jokuentzat. Dena 23.000 pta

☎ 74 05 80/74 18 34 Asier

KANPING-DENDA BAT saltzen dut. Oso handia da eta egoera oso onean dago.

☎ 74 15 22

MATRIMONIO LOGELA oso bat, 90eko bi ohe dituen LOGELA oso bat, MATRIMONIO LOGELA puente bat, SALA oso bat eta SUKALDE oso bat SALTZEN DITUT trasladoagatik.

☎ 74 33 19

Itik 3etara / 7,30etatik 10etara

FIAT TIPO 1.8 16 v. BAT saltzen dut. Kilometro gutxi ditu, direkzio asistitua, itxiera zentralizatua, sapa solarra eta leihoak isteko mekanismo elektrikoa. SS-AL

☎ 10 74 79

LOKAL BAT DAUKAGU SALGAI Foruen enparantzako arkupeetan. Lehen Iturri taberna izandakoa.

☎ 74 13 77


YAMAHA TZR 80 cc BAT saltzen dut. Oso ondo dago. Prezio interesgarria.

☎ 74 41 12 Nekane

CUERPO MINOLTA 7.000 BAT saltzen dut. Prezio oso interesgarria.

☎ 74 04 38 / 74 08 00 Aitor

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitala.756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....112131
Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikirolegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 22 67
El Correo Español...74 10 82
Egin.....11 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki Irratia74 34 74

31 OSTIRALA

20,00 **TANBORRADA KO BILERA**
✓ Kultur Etxean

22,15 **ZINEA**
"Frankenstein"

1 LARUNBATA

16,00 **GARE-REN BILERA**
✓ Kultur Etxean

19,30-22,15 **ZINEA**
"Frankenstein"

2 IGANDEA

9,30 **DULTZAINEROEN KALEJIRA**

10,30 **BANDAREN KALEJIRA**

12,30 **BANDAREN KONTZERTUA**
✓ Herriko Antzokian

16,30 **ZINEA**
"El tesoro de Curly"

19,30-22,15 **ZINEA**
"Frankenstein"

3 ASTELEHENA

18,00 **ESMALTE IKASTAROA**
✓ Ubitarte Plaza z/g
Antolatzailea: Egur Arte Lantegia
Apirilaren 25era arte

22,15 **ZINEA**
"Frankenstein"

4 ASTEARTEA

22,15 **ZINEA**
"Los inmortales III"
(Ikuslearen eguna)

5 ASTEAZKENA

19,00 **IERROTATXOREN BILERA HERRIKO TALDE ETA KOLEKTIBO GUZTIEKIN**

Gaia: Prebentzio astea eta alkohol kontsumoari buruzko plan orokorra
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Errotatxo

7 OSTIRALA

18,30 **ODOL ATERALDIA**
✓ Pedro Migel Urruzuno

22,15 **DANTZA**
Con buen pie taldearen "La trastienda" obra.
✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Udal Kultur Zerbitzua
Laguntzailea: Dantza Fundazioa

Z I N E A



Los inmortales III

Zuzendaria: Andy Morahan
Antzezleak: Christopher Lambert, Mario Van Peebles, Deborah Unger.

Zientifiko talde batek Japoneko mendi mitiko baten azpian 300 urtez harrapatuta igaro duen Kane magoa askatuko du. Kanek bere etsaia hil behar du, MacLeod inmortala. Kanen atzetik dabilen emakume ikertzaile batek MacLeod ezagutuko du. Beranduago MacLeod Eskoziara abiatuko da, han izango baita azken borrokaldia.

txandak

FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
1, larunbata:	Ormazabal	Zabaleta
2, igandea:	Ormazabal	Zabaleta
3, astelehena:	Ettxeberria	Escala
4, asteartea:	Ettxeberria	Escala
5, asteazkena:	Ettxeberria	Escala
6, osteguna:	Ettxeberria	Escala
7, ostirala:	Yudego	Escala

FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Plaentxi
Te. 75 13 84
Escala: Rekalde 1, Plaentxi
Tel. 75 16 38

OKINDEGIA:

2, igandea: FOTERO

Z I N E A



Frankenstein

Zuzendaria: Kenneth Branagh
Antzezleak: Robert De Niro, Kenneth Branagh, Helena Bonham-Carter.


Victor Frankensteinek haurtzaro zorionsua igarotzen du Ginebran amaren ondoren. Haurra izaterakoan ama hil egiten da. Aita, anaia eta arreba ordekoa atzean utzita unibertsitatara joango da. Han Waldman irakaslea ezagutuko du, eta honek laborategian gizaki bat sortzeko egin dituen ahaleginak ere bai. Ekaitz gau batean munstro antzeko izaki bat sortuko du. Erabat izututa, Frankensteinek gizaki hori hil nahiko du.

- **BEHERAPEN HANDIAK** erakusketa aldaketagatik
- **Logelak, liburutegiak, sofak...**
- **Lanparak 8.000 pta-tik gora**

EL ALMACEN DE ELGOIBAR

ALTZARIAK

Urasandi, 2. ☎ 74 29 41 •ELGOIBAR•



**ESKA EZAZU ORDUA
ZURE JAUNARTZE
ARGAZKIETARAKO**

**Bizitza guztirako
oroigarria izango
duzu**



Ez laga azken momenturako. Zatoz!

Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46 - ELGOIBAR




sake
KOPERATIBAK

INEKO

NEKAZARI KOOPERATIBA

Garantia osoa ematen duen SILO BOLAK
egiteko PLASTIKO BERDEA

**Eskaintza
Berezia!**



**NEURRI GUZTIETAKO ENSILATZEKO
PLASTIKO BELTZA**



Landareentzako
SUSTRATO LURRA

190
pta. 10 L.

280
pta. 20 L.

910
pta. 80 L.

■ BAINA SAREA

■ Ereiteko landareak

- Tipula gorria
- Tomatia
- Azelga
- Letxuga
- Piperra
- Aza
- ...